

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2697

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, honako ebazpen honen bigarren huts-zuzenketa egiteko dena: Ebazpena, 2021eko abenduaren 21ekoa, zeinaren bidez argitaratzen baita Berrrokarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia. Laguntza horiek Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatzen dira.

Aldez aurretik, komenigarria da adieraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 21eko Ebazpen horren huts-zuzenketa bat argitaratu dela dagoeneko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2022ko martxoaren 2ko 44. zenbakian.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Era horretako hutsak aurkitu dira 2021eko abenduaren 21eko Ebazpenean (2021eko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 262. zk.). Ebazpen horren bidez, argitara ematen da «Berrrokarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia. Laguntza horiek Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatzen dira. Horrenbestez, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

– 2021/6482 (23/5) orrialdean, 4.1 artikuluan, honela dio:

«Entitate onuradunak artikuluko honetako d) letran aurreikusitako ekintzak azpikontratatu ahal izango ditu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta lege hori garatzen duen erregelamenduaren 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.»

baina honela esan behar du:

«Erakunde onuradunak artikuluko honetako 2.b) apartatuan aurreikusitako ekintzen gauzatze partziala edo osoa, % 100eraino, azpikontratatu ahal izango du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta lege hori garatzen duen erregelamenduaren 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.»

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 30a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.